

16 euskal enpresa joan dira Basque Audiovisualaren eskutik, "Sunny Side of the Doc" dokumentalaren nazioarteko azokara

"Sunny Side of the doc" Dokumentalaren Nazioarteko Azoka ekainaren 21etik 24ra egin da, Frantziako La Rochelle hirian, eta euskal industriak ordezkari zabalak izan du. Azokak interes handia piztu du, eta, lehenengoz, Euskadiko 16 enpresak beren proiektuak eraman dituzte La Rochellera, Basque Audiovisualaren babespean.

Zehazki, hauek dira "Sunny Side of the doc"en egon diren enpresak: **Basque Films** ("Camaradas"), **Bitart** (Bilbao Mahler), **Dig y Tal**, **Fascina Producciones** ("Flores de la frontera"), **Gasteiz Film Office**, **Ibaia** ("Lau Haizetara"), **Idem** ("La primera vuelta al mundo"), **Kiribati** ("Ocharcoaga 1961"), **Moztu** ("Cuidadores"), **On-time** ("Gurinaren oroimena"), **Txalapat** ("Pure life"), **Txintxua Films** ("Bertsolari"), **Tuntuxa** ("Ttaup, Ttaup!"), **Signo digital** ("Sistiaga frame by frame", "Basque Hotel") **eta Sonora** ("Manuel Iradier, the explorer kid", "Identities").

Eikenek eta Etxepare Institutuak batera eginiko ekimen honen bidez, euskal ikus-entzunezkoen presentzia bermatu nahi da lehen mailako nazioarteko erakusleho honetan, enpresen salmenta lana bultzatzeari begira. Era berean, eta standean zuzenean egingo den lanaren osagarri, euskal enpresei buruzko informazioa www.basqueaudiovisual.com web orrian eskuratu daiteke, Euskal Ikus-entzunezkoen on-line katalogo gisa.

Sunny Side of the doc 2011

Sunny Side of the Doc-en 2011ko edizioak, azken hilabeteotan izandako joerekin bat eginda, dokumentalaren sektorerako hazkunde perspektibak eskaintzen ditu. Erregistroko datuen arabera, 62 herrialdeetako 1.700 profesional baino gehiago egon dira azokan, ahalezko 300 erosle baino gehiago, eta 400 erakusle.

Horren harira, azokaren antolatzaileek uste dute krisiaren amaiera erakusten duten adierazleak daudela, eta dokumentalaren kontzeptu berrien garrantzia azpimarratu dute, prozesu hori finkatzeko. Datozen urteetan arrakasta izateko aukera gehien dituzten dokumental formatuen artean, honako hauek aipatu dituzte: zineman emateko dokumentalak,



eduki hezitzaileko eta informatzaileko dokumentalak, eta errealitatetik hurbil daudenak.

Azokan parte hartuko duten txostengile nagusien artean ditugu Marc Tessier (Video Futur Entertainment Group), Veronique Cayla, Arte kateko presidentea, eta Rémy Pfmilin, France Télévisionseko presidentea.
